

HIPOTEKA ZORDUNEN BABESA



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



Disjurex

Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, ¡ LO TENEMOS !

Su mayor librería jurídica en internet



5% Descuento compraonline

Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de:
Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

SÍGUENOS EN:



ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. **944 255 220 ó 902 540 992.**

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia
Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Disjurex 

Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

Duela urte batzuetatik, apurka-apurka, familia askoren egoera ekonomiko eta soziala narriatzen ari da, eta mementoz prozesu horrek geldiezina dirudi. Horren eraginez, familiarik biririk irauteko oinarritzko elikagaien ostean preziatuena eta beharizanik handiena sortzen duena galtzen dute.

Egia esan, iraganean, higiezinaren erosketak kopurua biderkatu egin zen, higiezinaren arloko urakan baten antzera. Espekulazio asmo argiak alde batera utzita, alokairuen prezioak oso garestiak ziren, ez ziren arrazoi-zkoak, eta banku-erakundeek eskaintako interes-tasak oso txikiak. Izan ere, banku horiek hipoteka-maileguen bezeroak erakarri nahi zituzten, maileguak tasazioaren balioaren %100aren truke eskaintzen zituzten, eta batzuetan baita gehiagoren truke ere. Etxebizitzaren gaineko hipoteka bera alde batera utzita, mailegu horien berme bakarra alokairu egiaztatu bat egotea zen.

Higiezinaren arloko zoramen horren eraginez, lanbide-sektore batzuk bat-batean aberastu ziren, ez bakarrik banku sektorea eta higiezinaren sektorea, baita beste sektore batzuetako enpresak ere, hala nola eraikuntza eta zaharberritzeak, dekorazioa, diseinua, publicitatea, turismoa, notariotzak eta abokatuak. Baina itxurazko hazkunde horren oinarriak ez ziren benetakoak, gehiegizko zorpetzea zegoen, eta ahaztu egiten zen ordutik hasita beldurtzekoak moduko adierazleak iragartzen zituen langabezia tasaren errealitatea. Kanpoko zorpetzea susmatu ere ez zen egiten, eta indizeek gaur egun bizitzen ari garen errealitate kritikoa erakusten zuten.

Egia esan, enpleguaren hondatze izugarri eta beldurgarriak, tunel triste eta itxuraz irrealak zeharkatzea dakar. Hain zuzen ere, tunelaren alde batean existentzia duina, sozialki eta pertsonalki aberasgarria eta produktiboa daude, eta bestean, existentzia guztiz desberdina, batzuetan lazarria, kasurik onenean, familiako laguntzei esker edo gero eta gutxiago daukaten gizarte-laguntzako zerbitzuen laguntzei esker aurrera ateratzen dena.

Etxebizitza izateko eskubidea gure antolamendu juridikora bildutako oinarritzko eskubidea da. Beste horrenbeste gertatzen da lan egiteko eskubidearekin. Gaur egun, pesimismoak eta atsekabeak harrapatuta gaituzte, justizia administratzeko prozesuan parte hartzen dugunon eta botere legegilearen arteko arrakala sakonean murgilduta –botere legegileak lege bidegabeak ematen dizkigu, guztiei kalte egiten digute, eta batez ere, ahalmen ekonomiko gutxi dutenei–. Horren aurrean, iritzi egoera adimentsu, aske eta informatua sortzea, adierazpen-askatasuna egikaritzea, halakorik dugun bitartean, mobilizazioak eta protestak eta jarduerak proposamenak egiteko sormena eta irudimena suspertzea izan behar dira nagusi gure lanbidean jarduten dugunean, gure orainaldi sozial eta solidarioa berreraikitzen laguntzeko.

Son muchas las familias que desde hace unos años y progresivamente se están viendo incursas en procesos de un deterioro económico y social que, de momento, aparece como imparable y que les conduce a la pérdida del bien más preciado y más necesitado después de los alimentos básicos para la supervivencia.

Es cierto, que durante años pasados, el número de compras de inmuebles se vio multiplicado en una especie de huracán inmobiliario que, al margen de intenciones claramente especulativas, venía motivado por los precios relativamente asequibles de viviendas nueva y de segunda mano, los elevados y poco razonables precios de los alquileres en contraposición a los bajos tipos de interés ofrecidos por las entidades bancarias que competían por la captación del cliente de préstamo hipotecario, ofreciendo estos por el 100% del valor de tasación o incluso más allá y con la exigencia de garantías que, al margen de la propia hipoteca sobre la vivienda sólo incluían la existencia de un salario acreditado.

Esta locura inmobiliaria supuso el enriquecimiento repentino de algunos sectores profesionales, no sólo el bancario o el propio inmobiliario sino, el de empresas de otros sectores como el de construcción y reformas, decoración, diseño, publicidad, turismo, notarías o incluso abogados, pero este aparente crecimiento se sustentaba sobre unos fundamentos irreales de exagerado endeudamiento que ignoraba la realidad de una tasa de desempleo que ya entonces anunciaba marcadores alarmantes, un endeudamiento externo insospechado y unos índices que apuntaban a la realidad crítica que en la actualidad estamos viviendo.

Lo cierto es que la terrible y sobrecogedora destrucción de empleo implica, irremediablemente, atravesar el triste y aparentemente irreal túnel que separa una existencia digna, social y personalmente enriquecedora y productiva, de otra completamente diferente, en ocasiones desgarradora, dependiente, en el mejor de los casos, de ayudas familiares o de los servicios de asistencia social, cada vez menos dotados.

El derecho a la vivienda es un derecho fundamental recogido en nuestro ordenamiento jurídico, como también lo es el derecho al trabajo. En unos tiempos en que la desolación y el pesimismo nos desgastan, inmersos en una profunda fractura entre quienes participamos en el proceso de administración de justicia y el poder legislativo- que nos agrede con leyes injustas que a todos nos perjudican y, especialmente, a aquellos con menor poder económico- la creación de un estado de opinión inteligente, libre e informado, el ejercicio de la libertad de expresión, mientras nos quede, las movilizaciones y protestas y el estímulo de la creatividad y la imaginación para elaborar propuestas de actuación deben imperar en nuestro actuar como abogados en un estado urgente pero sereno de necesidad que contribuya a la reconstrucción de nuestro presente social y solidario.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatu
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M^a del Prado Guzmán López
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva
Mutualista desde 2008

Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	Todos los beneficios para el mutualista¹
Gestión independiente de las inversiones	Persiguiendo siempre la máxima seguridad
Rentabilidad para tus ahorros	4,5% en 2012 + complemento a final de año²
Tus seguros de vida a menor coste	Gracias a nuestra especialización
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	Con nuestro Club Privilegia
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	De previsión complementaria y seguros personales
Gestión profesional	Compatible con la autogestión por los abogados
Costes reducidos	Estructura simple y distribución directa
Tecnología	Web interactiva para cualquier trámite o consulta
Transparencia	Información trimestral, y diaria en la web

Para más información entra en
www.mutualidadabogacia.com

escribe un e-mail a
buzon@mutualidadabogacia.com

o llama al Servicio de Atención al Mutualista
902 25 50 50

1. Los resultados de la Mutualidad reierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

2012ko azaroa
noviembre 2012

06 **BERRIAK**

08 **INFORMAZIOA**

Hipoteka zordunen babes

11 **IBILALDIAK**

Cabralesen ibilbidean

14 **JARDUNALDIAK**

Jarduera proposamenak hipoteka
zordunen babesaren esparruan

18 **BAZKUNEKO
LIBURUTEGIA**

20 **LEGIGINTZA
BERRITASUNAK**

22 **KULTUR
ERANSKINA**

07



Diputatuen Kongresua RUIZ-GALLARDÓNEK IRAGARRI DU ALDERDIAK ETA SINDIKATUAK KONDENATU AHAL IZANGO DITUZTELA

Joan den urriaren 31n, Justizia ministroak iragarri zuen Gobernuak alderdi politikoetarako eta erakunde sindikalarako persona juridikoen erantzukizun penala gehitzeko asmoa duela. Alberto Ruiz-Gallardónek, Diputatuen Kongresuan egindako interpelazio bati erantzunez, aurreratu du Ministerioa lanean ari dela entitate horiek indarreko Zigor Kodearen 31 bis artikulua bosgarren atalean persona juridikoen araubide penaletik kanpo uzten dituen legezko salbuespena indargabetzeko.



Justizia Ministerioko titularrak gogorarazi du 2011n, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoa aldatu zenean, talde popularrak 337 zuzenketa bakarka aurkeztu zuela, eta horretan proposatzen zela alderdiek eta sindikatuek persona juridiko moduan kontuak eman ahal izatea. Orduan proposamena PSOEek baztertu egin zuen.

Ministroaren ustez, neurri gardena da eta horren bidez lortu nahi da politikoak eta hori egituratzen duten erakun-



deak gizartetik kanpoko zerbait balira legez ez ikustea eta pribilegioekin babestuta daudela ez pentsatzea. Beste horrenbeste lortu nahi da langileen ordezkariekin.

Ministroak azpimarratu duenez, "doktrina penalaren arabera oso zaila da entitate horiek kanpo uztea", baina

legeria konparatuan, "Frantzia, Europan arlo horretan bultzatzaile nagusia den aldetik, Estatuak soilik geratzen da kanpoan".

EGOTZIAK

Epaile batek delitu bat egotzi ondoren politikari bat edo funtzionario bat hauteskundeetako zerrendetatik kentzeari eta ezgaitzeari dagokionez, ministroak gogorarazi du errugabetasun-presuntzioa ez dela bateragarria egotzia erantzukizun argia ezarri aurretik betetzen duen eginkizunetik kanpo uzteko eskaerarekin.

Ministroak gogorarazi du susmagarri bat egozte egintza erraza dela eta horren bidez defentsa-eskubidea bermatu nahi dela, baina azpimarratu du erantzukizun penalaren ikuspuntutik ez duela ezer gehiago esan nahi epairik ez dagoen bitartean.

Ildo horretatik, Ruiz-Gallardónek beste pauso bat ematea proposatu du Prozedura Kriminalaren Lege berrian egozpen hutsaz harago doan mekanismo bat, hala nola ahozko epaiketa irekitzeko autoa, aztertzeko. Horretan, egozpenaren ostean, epaileak ahozko epaiketa irekitzea erabakitzen du kasua instruitu ondoren kriminalitate zantzu arrazoi-zkoak daudela uste badu.

Horretarako, Konstituzio Auzitegiak 364 bis artikulua, terrorismo delituei buruzkoa, berrikustean ezarritako doktrina aipatu du. Goi Auzitegiak eraldaketa balioztatu zuen salbuespen izaera zuelako, gaia oso larria zelako, eta betiere, prebentziozko espetxealdiarekin batera ematen bazen.

2012KO GABONAK GURE UMEENTZAKO AISIALDIKO JARDUERAK BAZKUNEAN

Gogoratu nahi dizuegu oraindik ere lekua dagoela elkargokideen 4/5 eta 11 urte bitarteko seme-alabentzako prestatu ditugun aisialdi jardueretan. Eki-men hori SUSPERGINTZA ELKARTEaren eskutik dator eta 2012ko **abenduaren 26, 27 eta 28an** eta 2013ko **urtarrilaren 2, 3 eta 4an** garatuko da, **goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bi eta erdiarte arte**. Aukera dago egun solte edo aste bakar baterako (abenduaren 26tik 28ra edo urtarrilaren 2tik 4ra) izena emateko.

Aste bakoitzeko 56 euro ordaindu beharko dira; **egun bakoitzeko, 21 euro**. **Jantoki zerbitzua ere eskaintzen da**, hain zuzen ere, **eguerdiko ordu bi eta erdietatik hiru eta erdietara; 5 euro egun bakoitzeko**. Izena emateko epea 2012ko abenduaren 17an (astelehena) bukatuko da; datuak email baten bidez (udalekuak@suspergintza.net) edo fax baten bidez (944008061 - tf. 944008060) eman, mesedez.

**BERRI
LABURRA
RESEÑA**

ABOKATUTZAREN MUTUALITATEAK ZUZENDARITZA ORGANIGRAMA BERREGITURATU DU: MERCEDES VÁZQUEZ DE PADURA ZUZENDARI OROKOR IZENDATU DU, ETA RAFAEL NAVAS LANCHAS, ZUZENDARIONDOKO OROKOR

Azaroaren 1etik aurrera, Abokatutzaren Mutualitatearen Gobernu Batzordeak urriaren 25ean hala erabakita, enpresaren Zuzendaritza Batzordean sartu dira Mercedes Vázquez de Padura zuzendari orokorraren karguan eta Rafael Navas Lanchas zuzendariondoko orokorraren karguan.

Zuzendari orokor berriak José Luis Pérez Torresek orain arte izandako kargua hartu du.

Azken horrek, jubilatu ondoren, erakundeari lotuta jarraituko du, ahokulari moduan.

Mercedes Vázquez Zuzenbideko lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Estatuko Aseguruaren Ikuska-pen Kidegoko kidea.

Aseguruaren munduko enpresa pribatuko goi-zuzendaritzako karguetan (zuzendari orokorraren karguan) 24 urteko ibilbidea

egin eta gero, Aseguruaren Zuzendaritza Nagusira igaro zen 2011n, eta hain zuzen ere, hortik dator Abokatutzaren Mutualitatean erantzukizun berriaren bere gain hartzeko.

Izendapen horien bidez, Mutualitateak etapa berria bultzatu nahi du, erakundeak mutualisten funtsen kudeaketan planteatuta dituen erronka berriei aurre egiteko.

ABOKATUEN ELEBERRIEN SARIAREN IV. EDIZIOA DEITU DUTE

ABOKATUTZAREN MUTUALITATEAK, ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN KONTSEILU NAGUSIAK ETA MARTÍNEZ ROCA ARGITALETXEAK **Abokatuena Eleberriena Sariaren** laugarren edizioa deitu dute.

Oinarrietan ezarritakoaren arabera, sari honen bidez, abokatuena munduari buruz aurkeztutako eta behar den besteko literatura-kalitatea duten eleberri ezezagunen bidez, irakurleari lagundu nahi zaio herritarren eskubideak babesten dituen lanbide hau eta lanbide honen jardueras-esparruak, balioak, proiektzioa eta gizarte-garrantzia sakontzen.

Epaimahaia kulturaren eta abokatutzaren munduan ospea duten kideek osatuko dute.

Sari honen bidez, 50.000 euro emango zaizkio epaimahaiaren ustez, aho batez edo botoen gehiengoz, gehien merezi duen eleberriari.

Jatorrizko lanak 2012ko abenduaren 15era arte jasoko dira, eta epaimahaiaren erabaki apelaezina 2013ko lehen lauhilekoan iragarriko da.

Literatura-sari honen hirugarren edizioan Borja Martínez-Echavarríaren EL BUFETE lanak eskuratu zuen saria. Lan horrek eta lehenengo edizioako LA PRUEBA saridunak, Carmen Gurruchagarenak, eta bigarren edizioako LA MELANCOLIA DE LOS HOM-BRES PAJARO saridunak, Juan Bolearenak, arrakasta handia lortu dute.

KONTZENTRAZIOA TASEN LEGE BERRIAREN AURKA

Joan den azaroaren 12an, Senatuak Taseen Lege berria onetsiko duenez, gure Bazkuko Gobernu Batzordeak Bilboko Justizia Jauregian kontzentrazioa egiteko deitu zigen, Lege hori onestearen aurka protesta egiteko.

Kontzentrazioa estamentu juridiko guztiak babestu zuten. Pablo Bustamante Prokuradoreen Elkargoko dekanoa, Alfonso González-Guija Bilboko epaile dekanoa eta Juan Calparsoro Euskal Autonomia Erkidegoko fiskalburua gure artean izan genituen, eta "Justicia para todos. Justicia Guztiontzat. Ley de Tasas, Justicia Gratuita. LOPJ" le-mako pankartari eutsi zioten.

Deialdiak izaera nazionala izan zuen. Modu horretan, estatuko 12.000 abokatu, epaile eta fiskal baino gehiago egoitza judizialen aurrean bildu ziren Taseen Lege berria ones-

tearen aurka protesta egiteko.

Gure deialdiari dagokionez, justiziako profesionalak, abokatuak (gehienak), epaileak, fiskalak eta prokuradoreak bildu ginen, 500 pertsona baino gehiago, lege bidegabea onestearen aurka protesta egiteok, herritar guztiak justizia-administrazioan sarbidea izateko oinarritzko eskubidearen aurkako baita.

Izan ere, gure dekanok komunikabideei adierazi zenez, Taseen Lege berria onetsita, "zerga gehiago bildu nahi dira eta herritarrei Justizia Auzitegiatarra jotzea eragotzi nahi zaie". Horrek ondorio larriak izango ditu lanbidea eguneroko gauzatzeko.

Gizartea Lege berriaren bidegabekeriak ohartzea eta testu horrek ibilbide laburra izatea espero dugu.



HIPOTEKA ZORDUNEN BABESA. NAHASTE-BORRASTEA

Por FRANCISCO GARCÍA-ESCÁRZAGA GONZÁLEZ Zuzenbideko doktorea. Abokatu



“Espainia krisi ekonomiko sakona pairatzen ari da duela lau urtetik...”; hala dio baliabiderik gabeko zordunak babesteko presako neurriei buruzko 6/2012 ELDko zioen azalpenak. Testu barruan, hiru jardun sorta aurkezten dizkigu: hipoteka-zorrraren berregituratze bideragarria, modu alternatiboan zordunari zor osoaren gaineko kita eskaintzea edo, hala denean, ohiko etxebizitza ordainean ematea, hipoteka-zorra behin betiko ordaintzeko.

ELD hau arau multzo baten barruan sartzen da, eta guztien xede praktikoa herritar askorentzat eta haien familientzat gaur egungo egoera ekonomikoak ekarri dituen kalteak zuzentzea da. Langabezia-tasa kezkarria da, lanean ezegonkortasuna da nagusi, bankuko eta oinarriko produktuak garestitu egin dira, zergek gora egin dute eta pentsioak bermatzearen inguruan zalantzak daude. Horren guztiaren eraginez, pertsona askok ez dute ez baliabiderik ez behar den beste denborarik haien betebeharrak betetzeko, eta berehala erreklamazio judizialak etortzen dira eta azkenean ondarea suntsitu egiten da; horrek txirotasuna dakar ondoren.

Gaur egun pairatzen dugun egoera ekonomikoaren jatorriari eta ondorioei buruzko arrazoiak, azalpenak, analisiak, etab. behin eta berriro entzuten dira. Baina komeni da berrikuspen kritikoa egitea ikuspuntu sozial eta juridikotik aspalditik hona *hipoteka zordunen babesa* deitu izan denaren inguruan. Azken urteetan higiezinaren arloan ekonomia asko berotu da, interes barregarriekin, aurreko mendeko hirurogeita hamarrekota eta laurogeiko interesekin alderatuz gero. Horren eraginez, pertsona askok etxebizitza jabetzan lortu zuten, eta horrela apurka-apurka etxebizitza garestitu egin ziren. Egoera horrek, denboran iraun zuenez, burbuila bat eragin zuen, eta gaur egun horren gainbehera bizitzen ari gara. Bestalde, gure herrialdean atzerriko diru masa handia sartu zen, eta horren eraginez, gure kreditu entitateek ahaztu egin zituzten bezeroekin izan behar diren kautela neurriak. Horregatik, entitate horien erantzukizuna daukate, ez erantzukizun osoa, baina bai zati bat. Horrez gain, gobernuak ere egoera honetara iristen lagundu dute eta, amaitzeko, kontsumitzaile asko, modu arriskutsuan, zorpetzearen noriara igo dira, itxuraz amaierarik ez zuen hazkunde ekonomikoaren ikusmuga aurrean zutela.

Azken horiek dira krisiaren lehenengo biktimak, baina ez bakarrik. Eta horiei laguntzeko dira egoera zaugarriak saihestu nahi dituzten arazuko neurri hauek. Hain zuzen ere, hurrengo hauek dira: Bulego judizial berria ezartzeko legeria prozesala eraldatzen duen 13/2009, Bizkortze prozesalerako neurrien 37/2011 Legea, Hipoteka-zordunak babesteko neurrien 8/2011 Errege Lege Dekretua eta Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko presako neurrien 6/2012 Errege Lege Dekretua.

Indarreko Prozedura Zibilaren Legeko zenbait artikulua aldatzeko neurriak ere badaude, nahiz eta Lege hori 2000. urtean aldarrikatuta egon. Inguruabar horren eraginez, lerro labur hauen bidez, hipoteka-exekuzioen alderdi batzuei buruzko gogoeta egingo dugu:

PERTSONA EDO ENTITATE ESPEZIALIZATUAK ONDASUN HIGIEZINAK DIRU BIHURTZEA PZL-N; ZAPUZTUTAKO BERRIKUNTZA

Urtarrilaren 7ko 1/2000ko Legeko premiamendu-prozedura modernotasun ideiekin eta asmo onekin agertu zen agertoki juridikoan, baina gure ustez, xede xumeekin. Batzuetan asmatu egin du; hor dago nahitaezko exekuzioaren arauketa bateratua, aurretik bi exekuzio sistema baitzuden: 1881eko PZLrena eta Hipoteka Legearen¹ 131. artikuluko prozedura sumarioa. Horren eraginez, auzitegien eguneroko lanean nahasteak saihestu dira, lege irizpide bakarrekin. Orain aipatzen ari garena berrikuntza arranditsu hura da, nahitaezko besterentze desberdin bati bidea irekitzen ziona, enkante publikoaren sistema tradizionala alde batera utzita; epaileak higiezina besterentzeko pertsona espezializatuak izendatzeko aukera dago, alderdi betearazleak eskatuta zein alderdi betearazlearen oniritziarekin.



Sistema horrek, aplikazio egokiarekin, enkanteak baino emaitza hobek eman ditzake, eta horrela, ondasuna gutxiesten saihesten da. Tradizioz, enkante publikoa epaitegitik kanpo sorpresaz betetako eremu moduan ikusi izan da, profesionaleri erreserbatuta dagoena, eta hala denean, herritar ausartei. Legearen asmoa (hala ondorioztatzen da Legearen espiritutik) gauzatzeko publikoaren eragiketarako merkatu librean saltzearekin ordeztzea bada, komeniga-

¹ Ez dugu hemen aztertuko ea hipoteka-exekuzioaren prozedura hobeto sartuko litzatekeen hipoteka legean lege prozesalean baino, higiezin-bermearen *vis attractiva dela bide*.

riena da salmenta-kudeaketak auzitegietatik kanpoko profesional baten esku uztea, hau da, *salmenta kudeaketa epaitegitik kanpo garatzea*. Modu horretan, forma prozesalen zorrotztasuna leundu egiten da, eta balizko erosleen esparrua zabaldu egiten da.

Hona hemen PZLren 641. artikuluan ezarritakoari eraginkortasuna kendu dioten akatsak:

- Artikulu bakar batean arautu nahi izan da higigarriak zein higiezinak pertsona edo entitate espezializatu batek saltzea, eta ez da kontuan hartu higiezinaren merkaturik zein bertako eragileak ondasun higigarrien merkaturikoekin (adib. artelanak, antigoaleko gauzak, etab.). Horren ondorioz, araua estuegia, zorrotzegia eta guztiz ez-eraginkorra da. Horren adibide bat da bidezko kauzioa eman behar dela diru bihurtzea entitate espezializatu batek egiten duenean; ondasun higigarrien kasuan zentzua izan dezakeen horrek ez du inolako garrantzirik etxebizitzaren kasuan, eta entitate horien sustapena zaildu egiten da.

- Oso zaila da merkatu librean erosle bati etxebizitza bat ikusi gabe saldu ahal izatea. Ondasun garrantzitsua denez, ulergarria da interesdunek ikusi nahi izatea haien beharrezanetara egokitzuten den jakiteko (metro koadroak, gela kopurua, etxeko komunak, kontserbazio egoera, komunitateko gastuak, etab.). Beraz, ezinbestean, zenbait neurri hartu behar dira.

Lege ferenda, beharrezkoa da ondasun higiezinak diru bihurtzean arauak berak auzitegiari intimizazio neurriren bat ematea zordunak higiezinaren salmenta sustatzean parte hartu dezan. PZLren 641. artikuluan ezarri da "*alderdi betearazleak, edo alderdi exekutatuak alderdi betearazlearen adostasunarekin...*", eta horrek iradokitzen du alderdi betearazleak eskatzen badu salmenta pertsona espezializatuak egitea, horrek ez duela behar exekuta-



tuaren baimenik. Horrek bidea ematen du zordunari eskatzeko *jarrera jakin bat* epaitegitik kanpo salmenta ordenatua egiteko. Zorduna epaitegiarekin lankidetzan aritzeak esan nahi du etxebizitzara joateko erraztasunak eman behar direla balizko erosleek bisita egin ahal izateko. Bateratu egin behar dira diru bihurtzeko eskubidea eta etxebizitzaren gauzatutako intimitate pertsonal eta familiakoa. Gorabehera horiek guztiak arauak pertsona espezializatua izendatzeko ezarritako agerraldian zehaztu behar dira.



Higiezinaren salmentako balioari dagokionez, hori ez da inolako arazoa hipoteka-exekuzioaren kasuan, eratzeko eskrituran finkatu baita enkantearen ondoretarako². Tipo hori erreferentzia izango da, baina ezin izango dira urratu legean bertan ezarritako ehunekoaren mugak.

Gaur egun, PZLren 641. artikulua hilda dago; iradokitako neurrien edo planteatu daitezkeen bidez, araua berpiztu behar da, hauen onurarako: batetik, hartzekodunarentzat, kreditua berreskuratzeko enkantearen aurreko alternatiba baitu; eta bestetik, zordunarentzat, modu horretan zorra ordaintzeko borondatean inplikatzeko baita argi. Ez dago zalantzarik, saltzearen aldeko jarrerara badago bien aldetik, salmenta errazteaz gain, prezio hobea lortzeko aukerak ere sustatu egiten dira³.

Jarraitu beharreko bide moduan, 6/2012 ELDean gehitutako eranskinak, 3-d atalean (ordainean ematea), zehazten du entitateek zordunekin adostu dezaketela etxebizitza besterentzean sortutako plusbalioaren zati bat lagatzea, entitateak eskualdatzean eman dezakeen *lankidetzaren ordainetan*. Egoera hori gertatzen da iraungitako zordunak c) letran ezarritako errentamendua hautatu zein ez.

ORDAINTZEKO ADJUDIKATZEA. PZL-REN 671. ARTIKULUA

PZLren 671. artikuluan egin dira aldaketa gehien denbora tarte laburrean: azaroaren 3ko 13/2009 Legeak (2010eko maiatzean indarrean jarri zenak) aldatu zuen, eta uztailaren 1eko 8/2011 ELDK berriro ere aldatu zuen. Arrazoiak azken urteetan epaitegiatara iritsi diren exekuzioen kopuru handia (batez ere hipoteka arlokoak) eta posturagilerik gabeko enkanteen ehuneko handia izan dira. Posturagilerik gabeko enkanteetan, ondasuna hartzekodunari adjudikatzen zitzaion tasazio-balioaren %50ean edo kontzeptu guztiengatik zor zen kopuruaren truke; hartzekodunak bere intereserako onuragarriena zen alternatiba hautatzen zuen.

Lehenengo aldaketak (13/2009 Legea), oso zuhurrak, adjudikazioa aldatu egin zuen, izan ere, hartzekodunak adjudikazioa eskatu ahal zuen %50eko "kopuruaren edo handiagoaren" truke edo kontzeptu guztiengatik zor zion kopuruaren truke. Aldaketa

² Enkantearen ondoretarako adierazitako balioaren gaurkotzeak hipoteka-exekuzioaren anean hartzekodunarentzat eta zordunarentzat duen onurari buruzko eztabaida, exekuzio arruntarekin parekatuz, beste kontu bat da.

³ Argi dago, merkatu erregularrean, baina gaur egungo krisiarekin desagertu egin da.

horren bidez zordunarentzat galtzen zuen ondasunaren baliora egokitutako kontraprestazioa lortu beharrean, hartzekodunari erraztu egiten zion ondasuna gehienetan handiagoak ziren balioen truke adjudikatzea, eta gero, saltzeko orduan, horrek ez zion eragingo zerga kalterik nahi gabeko ondare gehikuntzengatik.

8/2011 ELDk artikulua edukia gaur egun indarrean dagoen bezala idatzi zuen. Erreklamaturako (diruzko) kontzeptu guztien truke adjudikatzea kanpoan utzi zuen, eta ordaintzeko adjudikatzea egiten zen tasazio balioaren "100eko 60an edo kopuru handiagoan"⁴. Zordunari guztia kentzea saihesteko ehuneko muga hori orekatua den edo ez erabakiko da hartzekodun-zordun harremanean analistak duen egoeraren arabera.

Ondasun bat adjudikatzen duen entitate hartzekodunak, hipoteka-estaldura egokiaren kasuan ere, gerora zenbait kostu ditu (fiskalak⁵, salmentakoak, iraupenekoak, etab.). Hori dela bide, nahikotxotan, adjudikazio bat ezin da negozio moduan ulertu. Edonola ere, gaur egun, arazoa konpontzea zaila da eta konponketa hori ez du ekarriko arau prozesalaren zuzenketa batek, gizarte- eta ekonomia-ehuna birsortzeak baizik. Baina, azken horretarako, zoritxarrez, ez dugu konponbide errazik.



Amaitzeko, labor esango dugu 8/2011 ELDk PZLren 670. artikulua 4. idatz-zatiaren bigarren paragrafoa ere aldatzen duela. Horren arabera, alderdi beterazleak ahalmena du, enkantearen fase prozesalean, ondasun higiezinaren adjudikatzea eska dezake, tasazio-balioaren 100eko 70ean, edo kontzeptu guztien ondorioz zordundutako kopuruan, betiere kopuru hori tasazio-balioaren %60 edo postuarik onena baino handiagoa denean.

ORDAINEAN EMATEA

Oraintsu arautu du 6/2012 ELDk, balia biderik gabeko hipoteka-zordunei lotuta. Ohiko etxebizitza hartzekodunei ordainean zorra behin betiko amaitzen da eta, beraz, baita

erantzukizun pertsonala ere eta, hala denean, hirugarren bermatzailea ere libre geratzen da. Era berean, berme erreal osagarria ere deuseztatu egiten da, eskritura publikoaren bidez.

Ordainean ematea, aipatu arauan araututa dagoen moduan, *bazterketa atalase* izenekoan dauden zordunen esparruan kokatu behar da (horien inguruabarrak 3-1 artikuluan kalifikatuta daude). Hiru ataleko programa baten barruan, horretara jo daiteke aurrek bi neurriek, hau da, hipoteka-zorren berregituratzeak eta zor osoaren gaineko kitak, ez badute emaitza moduan ematen hipoteka-ahalegina arrazoizko finantza-bideragarritasunera murriztea. Zordunek ordainean ematea eska dezakete zorra behin betiko kentzeko bide moduan, eta kreditu-entitateak onartu egin behar du⁶. Salbuespen bakarra gertatzen da enkantea zehaztuta dagoenean, exekuzio zuzeneko prozedura abiatuta dagoelako, edo etxebizitza geroko kargekin zamatuta dagoenean. Arauak ez du ezer esaten Jabetzaren Erregistroan enbargarik ez duten hartzekodunak dauden kasuetarako.

6/2012 ELDn zehaztutako ordainean emateak *sui generis* ezaugarriak ditu. Zordunak eskatuta, horren eta bankuaren arte harremana etxebizitza-errentamenduko izango da, bi urteko epean, luzatzeko aukerarik gabe, alderdien idatzizko akordioaren bidez ez bada. Bi urte horietan, urteko errenta ordainean ematearen uneko zorren zenbateko osoaren ehuneko 3 izango da⁷.

Besteak beste, 6/2012 ELDren xedapen gehigarri bakaurrean, 6. idatz-zatian, ordainean ematearen ondorioz sortutako errentamendu horien kasuan errenta ez ordaintzea arautzen da. Errentariak kaleratze-prozedura abiatu dezake ordaindu ez denetik sei hilabete egun ondoren, epe horretan zor osoa ordaindu ez badu. Baina horren eraginez baliteke ez ordaintzea modu erregularrean gertatzea, eta egoera handik sei hilabetera erregularizatzea.

Kontratuaren bi urteak igaro ondoren, errentariak etxebizitza uzten ez badu, errentatzaileak kaleratze prozedurara jo dezake, eta etxebizitza modu bidegabean okupatuta egon den hilabeteetako merkatuko errenta eska dezake.

Azken ohar batzuk: ordainean ematean gertatzen den errentamendu-harremana, ELDn araututa dagoen moduan, gure ustez, *rebus sic stantibus* klausula hutsa izan behar da; aparteko legezko neurri baten barruan ulertu behar da, gaur egun gure herrialdeak bizi duen muturreko ekonomia eta gizarte egoera kontuan hartuta. Hori dela eta, esparru zorrotz horren barruan aplikatu behar da. Bestela, herritar askok pairatzen duten gainbehera ekonomiko eta soziala gainditu ondoren eta neurria denboran luzatzen bada, oso kaltegarria izan daiteke kontsumitzaile berrien intereserako. Izan ere, banku-sistemak baldintza zorrotzak ezar ditzake ohiko etxebizitza eskuratzeko kreditua eskatzerakoan.

⁴ Uneoro ohiko etxebizitzaz ari gara. Ohiko etxebizitza ez diren gainerako higiezinaren kasuan, 13/2009 Legeak egindako aldaketa dago indarrean; PZLren seigarren xedapen gehigarri berriaren arabera, bizkortze prozesalerako neurrien urriaren 10eko 37/2011 Legeak gehitutakoa.

⁵ Ordaintzeko adjudikatzea eskualdatzarekin parekatzen da OEEJDZn. Ez dago itxurazko ez antzeko arrazoirik bere gaitasun ekonomikoarekin higiezin bat eskuratzeko erabakitzen duen pertsonaren eta ordainketa baten truke aurreikusten ez zuen zerbait adjudikatzen duen pertsonaren artean. Tributu-tipoak desberdinak izan beharko liriteke; argi dago hau ez dela hori iradokitzeko unea.

⁶ Kreditu-entitatea eginera onen koderat bada borondatez, banku eta kutxa gehienek egin duten moduan, Ekonomiaren eta Enpresa Laguntzaren Estatu Idazkaritzak 2012ko apirilaren 10eko Ebazpenean emandako zerrendaren arabera (2012ko apirilaren 12ko BOE).

⁷ Etxebizitzaren balioaren gaineko ehuneko 3 da gaur egun jabe batek lortu ohi duen batez besteko errendimendua. ELDn, ehuneko hori ordainean emateko uneko zor osoaren oinarriaren gain kalkulatu da.

CABRALESEN IBILBIDEAN

Jon Zapirain Bilbao - 2798 zenbakiko elkargokidea



Cabralesgo “Quesu” gazta ekoitzen den lurraldean murgilduko gara. Gure bi mendi ibilbideetan, udan behiak hartzen dituzten goiko larreak bisitatuko ditugu, zenbait “saroi” edo artzainen herrixka zeharkatuko ditugu, bertan “quesu” ekoizten baita, eta gazta eskuz egitearen sekretuak maitasun handiz gordetzen dituzten artzainekin hitz egiteko aukera izango dugu.

Bilbo - Santander - Torrelavega - Unquera - Panes - Arenas de Cabrales - Puente Poncebos - **Sotres** (ikusi bidea 189. zenbakiko aldizkarian).

1. IBILBIDEA

Hurbilketa

Ibilgailu partikularrean **Sotresetik** aterako gara (1.045 m), eta errepidetik 200 metro inguru jaitsi ondoren, bihurtu oso estu batean, ezkerrean hartuko dugu, hegoalderantz, **Áliva-Vegas del Toro o de Sotres norabideko pista hartzeko**.

Pistak zuzen eramaten gaitu haranaren hondoraino (3 km),

eta bertan **Vegas del Toro** (edo de Sotres) herrixka dago. Pista egoera onean dago, baina ibilgailu garaia badugu hobe, pista bat da eta.

Artzainen herrixka honek udan biztanle batzuk izaten ditu. Oraindik etxola batzuk ikus daitezke egoera onean eta artzainen erreferentzia eta aterpea dira behiak mendiko larreetan daudenean. Merezi du argazki batzuk egin eta giro horretako giro lasaia errespetatzea. Garrantzitsua da ibilgailua leku egoki eta diskretuan uztea.

0,00.- Vegas del Torotik (1.050 m), hegoalderantz doan pista beretik ibiltzen hasiko gara, baina orain gorantz. Pista bat baino gehiago bide zabal bat da, eta artzainen 4x4 ibilgailuak edo Parke Naturaleko zaintzaileak noizean behin hemendik ibiltzen dira. Harana gure begien aurrean aldatzen da gorantz goazen neurrian, eta behiak bidearen alde batean eta bestean aurkituko ditugu.

0,30.- Hormigoizko mugarri batzuk zeharkatuko ditugu. Iraganeko leku horretan ate bat egon zen, baina orain ez dago horrelakorik. Kableek gure atentzioa deitzen dute. Alanbresiaren antzera, kableak bi norabideetan hedatzen dira mugarrietatik eta igarobide nagusia ere prestatuta dago

behiak alde batetik bestera igaro ez daitezten. Asturiasen eta Kantabriaren arteko **“mugan”** gaude. Badirudi behiek badakitela hori.

Pista hobetu egiten da eta ibiltzea erosoagoa da. Bideak gora egiten du apurka-apurka, 1.300 metrora gaude. Behiak, ardiak eta ile zoragarriko zaldiak ikus ditzakegu.

1,10.- Bidea muino belartsuaren goiko aldetik igarotzen da, eta bi aldeetan geratzen diren haranen ikuspegi zoragarria eskaintzen digu.

Ezkerrera bide bat ikusiko dugu, baina ez diogu jaramonik egingo. Izan ere, karteletan irakur daitekeenez, Álivako portuetara eta Espinamara doa.

Hartu ez dugun bidea **Álivako Santucaren baselizaren** ondotik igarotzen da, baina erreferentzia bat baino ez da, baseliza gero eta urrunago ikusiko baitugu.

Gure pistak muinotik gorantz egiten jarraitzen du. Azkenean 5 metroko altuera duen harri erraldoi bat aurkituko dugu bidearen bazterrean. Norabide egokian goazela adierazten digu. Guk **“Meteorito”** izena jarri diogu.

El presente real decreto se ocupa de este nuevo seguro o garantía, aunque no impide que, al amparo de la autonomía privada o de otras previsiones legales, los administradores concursales contraten otros seguros específicos e independientes de esa responsabilidad civil, para cubrir más intensamente los riesgos del ejercicio de esa actividad profesional, o introduzcan esa cobertura mínima obligatoria como ampliación de las pólizas de responsabilidad civil profesional de abogados, economistas, titulados mercantiles o auditores.

La única excepción a la exigencia de seguro de responsabilidad civil o garantía equivalente es el caso de que el nombramiento de administrador concursal recaiga en una Administración Pública o una entidad de derecho público vinculada o dependiente de ella cuando se designe para el ejercicio de las funciones propias del cargo a persona natural que ostente la condición de empleado público.

La vigencia del seguro o la garantía equivalente se configura como presupuesto para la aceptación del cargo. Además, se impone al Juzgado la notificación del nombramiento y de la aceptación del administrador concursal. Asimismo, se imponen singulares deberes de información tanto al administrador concursal como al asegurador de la responsabilidad civil, que habrá de comunicar al Juzgado determinadas modificaciones o vicisitudes de la relación contractual, como la falta de pago de la prima, habiendo de mantenerse la cobertura durante el período de un mes desde que realizó la comunicación.

La suma obligatoriamente asegurada se ha determinado atendiendo a la entidad de los concursos de acreedores que se vienen produciendo en nuestro país. Ese mínimo se eleva por el real decreto bien por el número de concursos en los que se desempeñe la administración concursal, bien por las condiciones subjetivas del deudor común, como es el caso de los denominados concursos de especial transcendencia.

> **Ley Orgánica 5/2012, de 22 de octubre**, de reforma de la Ley Orgánica 8/2007, de 4 de julio, sobre financiación de los partidos políticos. (BOE 2-10-12).

> **Orden de 15 de octubre de 2012**, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico. (BOPV 31-10-12).

DERECHO UNIÓN EUROPEA

> **Reglamento de Procedimiento del Tribunal de Justicia**. (DOUE 29-9-12).

TRIBUTU ZUZENBIDEA

> **HAP/2259/2012 Agindua, urriaren 22koa**, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztuko moduluak, EHA/3257/2011 Aginduaren bidez onartutakoak, **aldatzen dituena** (azaroaren 21eko EHA/3257/2011 Aginduak 2012rako **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboa egiteko metodoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztua** garatzen ditu).

> **7/2012 Legea, urriaren 29koa**, iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzeko (BOE 12-10-30).

> **Gipuzkoako Foru Aldundia: 2/2012 Foru Araua**, maiatzaren 14koa, Hirilurrien balioaren gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, aldatzekoa (EAAO 12-10-11).

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2012 Foru Dekretua**, urriaren 16koa. Honen bidez, **Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudia eta Zergen Arloko Zehapen-araudia aldatzen dira** (BAO 12-10-23).

Araudi horiei biei zenbait aldaketa tekniko egin behar zaizkie, haietan jasota gera dadin kasuan kasuko ikuskatzaile-buruak oniritzia eman behar diela aktuarioek izenpetutako aktei.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzen da, araudi horretan jasotzeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko araudi berria onartzeak eragindako aldaketak.

> **Gipuzkoako Foru Aldundia: 4/2012 Foru Araua**, uztailaren 4koa, **udal zergen esparruan zenbait aldaketa** sartzen dituena (BOPV 12-10-23).

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua aldatzen da, eta helburua da beste ikuspegi batetik arautzea etxebizitza hutsetarako aurreikusten den errenergua. Ikuspegi berriaren arabera, errenergua aplikatzeko ez da kontuan hartu behar etxebizitza hutsaren kontzeptua, baizik eta etxebizitza bat tokian tokiko udalerrian ohiko egoitza den edo

ez. Horrekin gaintitu egiten da etxebizitza hutsaren kontzeptua zehazteak dakarren arazoa. Izan ere, erregelamenduz garatzeko aurreikusita baze- goen ere, azkenean ez du argirik ikusi teknikoki arautze zailekoa izateagatik.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez, 2.000.000 eurotik 1.000.000 eurora jaisten da salbuetsitakoa. Horrekin batera, 11. artikuluko ponderazio koefizienteak aldatzen dira, hain zuzen ere, zergaren tarifetan finkatutako kuotak gehitzeko udalek aplikatzekoak.

Azkenik, berariaz aitortzen da udalak eskudun direla jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko haien egiaztapen jarduketetan oinarrituta.

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

> **1483/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa**, kaleratze kolektiboaren eta kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizteen prozeduren erregelamendua onartzen duena (BOE 12-10-30).

> **1484/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa**, irabaziak egiten dituzten enpresek berrogeita hamar urte edo gehiagoko langileei eragiten dieten kaleratze kolektiboak egiten dituztenean egin beharreko ekarpen ekonomikoei buruzkoak (BOE 12-10-30).

BESTELAKOAK

> **1333/2012 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa**, konkurtso-administratzaileen erantzukizun zibileko aseguruak eta berme baliokidea arautzen dituena (BOE 12-10-6).

El presente real decreto se ocupa de este nuevo seguro o garantía, aunque no impide que, al amparo de la autonomía privada o de otras previsiones legales, los administradores concursales contraten otros seguros específicos e independientes de esa responsabilidad civil, para cubrir más intensamente los riesgos del ejercicio de esa actividad profesional, o introduzcan esa cobertura mínima obligatoria como ampliación de las pólizas de responsabilidad civil profesional de abogados, economistas, titulados mercantiles o auditores.

La única excepción a la exigencia de seguro de responsabilidad civil o garantía equivalente es el caso de que el nombramiento de administrador concursal recaiga en una Administración Pública o una entidad de derecho público vinculada o dependiente de ella cuando se designe para el ejercicio de las funciones propias del cargo a persona natural que ostente la condición de empleado público.

La vigencia del seguro o la garantía equivalente se configura como presupuesto para la aceptación del cargo. Además, se impone al Juzgado la notificación del nombramiento y de la aceptación del administrador concursal. Asimismo, se imponen singulares deberes de información tanto al administrador concursal como al asegurador de la responsabilidad civil, que habrá de comunicar al Juzgado determinadas modificaciones o vicisitudes de la relación contractual, como la falta de pago de la prima, habiendo de mantenerse la cobertura durante el periodo de un mes desde que realizó la comunicación.

La suma obligatoriamente asegurada se ha determinado atendiendo a la entidad de los concursos de acreedores que se vienen produciendo en nuestro país. Ese mínimo se eleva por el real decreto bien por el número de concursos en los que se desempeñe la administración concursal, bien por las condiciones subjetivas del deudor común, como es el caso de los denominados concursos de especial transcendencia.

> **5/2012 Lege Organikoa, urriaren 22koa**, alderdi politikoen finantzaketa-ri buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren erreformari buruzkoa (BOE 12-10-23).

> **Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa**, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, **etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa** (BOPV 12-10-31).

EUROPAR BATASUNEN ZUZENBIDEA

> **Justizia Auzitegiaren Prozedurari buruzko erregelamendua** (EBAO 12-9-29).



NOCHES AZULES



Egilea:
Joan Didion

Itzulpena:
Javier Calvo

Mondadori, 2012.
150 or.; 19,90€
e-book 13,95€

Joan Didion (Sacramento, 1934) idazlearen esanetan, New Yorken, udako solstizioaren osteko egunetan, iluntzeak oso luzeak izaten dira. Eguzkia ezkutatzean, argi urdin batek dena menpean hartzen du, modu mugagabean luzatzen den aldi batez. Didionek tarte horri “gau urdin” esaten dio. Xarma moduko bat da, eta horretan denbora luzatu egiten da eta badirudi iluntasuna ez dela inoiz iritsiko. Baina badakigu amaiera zein den. Xarma desagertu egiten da eta iluntasuna jaun eta jabe egiten da. Eta, horrekin batera, egonezina: *“Gau urdinak amaitzen diren neurrian, hotzikara bat sentitzen dizu, gaixotasun ikuspegi bat, konturatzen zaren une berean: argi urdina badoa, egunak laburtu egiten dira, uda joan da (...)”*.

Joan Didionek “gau ilunen” metafora azken eleberriaren izenburu bihurtu du. Izan ere, kontatu nahi diguna argi irudikatzen du. Denbora joatearen itzulizintasuna. Baina Didion matxinatu egiten da denbora hori itzuliko ez delako. Zoruan ostiko egiten du, protesta eta oihu egiten du. Denbora gelditu nahi du, atzera egin, joan den guztia berreskuratu. Alferrik da, urari eskuetan eustea bezalakoa da. “Noches azules” eleberriak urradura eta inpotentzia asko du. Komenigarria da esatea Didionek lan hau idatzi zuela bere alaba bakarra 39 urte

zituela galdu ondoren. Urte batzuk lehenago senarra hil zitzaion. Didionek zahartzarora aurrez aurrea urkitzen du. Bakarrik dago, nekata eta noraezean. Esaten dutenez, maite duzun norbait hiltzen zaizunean, lan handiak ateratzen dira. Eleberrigileak barru-barrutik idazten duelako dela esaten dute. Minari hitzak gehitzen dizkiolako, eta barruko guztia kanpora ateratzen duelako. “Kirkus Reviews” argitalpeneko kritikariak hori uste du, eta “Noches azules” lana “klasiko labur eta iluna” dela dio.

Eleberrian gogoeta ordainezin asko daude. Horietako batean, Didionek bere buruari leporatzen dio ez duela baloratu izan zuena. Eszena horretan, idazleak maite dituen pertsonen armarriak eta tiraderak hustu behar ditu. Hurrengo esaten du: *“Kaxak irekitzen jarraitzen dut. Bizitza osoan ikusi nahi ditudan argazki koloregabe eta arrakaldu guztiak baino gehiago aurkitzen ditut. Dagoeneko ezkondu ez daudenen ezkontza-gonbidapen asko aurkitzen ditut. Dagoeneko oroitzen ez ditudan pertsonen hileta-gomutagarriak aurkitzen ditut. Teorian, oroitzapen horiek guztiak iraganeko uneak gogoratzeko balio dute. Baina, egia esan, une haiek aurrean izan nituenean oso gutxi baloratu nituela konturatzeko balio didate niri”*.

“En cuanto nació ella, ya nunca dejé de tener miedo”.

Joan Didion

CUENTOS ITALIANOS



Egilea:
Verga, De Amicis, Svevo, D'Annunzio, Pirandello eta Deledda

Itzulpena:
Elena Martínez

Editorial Gadir, 2012.
151 or.; 10,95€

“Cuentos italianos” izenburupean, Agadir argitaletxeak Italiako eleberrigintzaren aldi emankorrenetako bateko ipuinen hautaketa eskaintzen digu. Mende aldaketak Italian sentikortasun berezia zuten idazleen multzoa eman zuen. Erromantizismoko ildo artistikoen aurreko erantzuna balitz bezala, idazle berriek benetako Italian jarri zuten arreta. Benetako Italian. Ez zitzaizkien balentria handiak interesatzen, iraganeko loriak abestea edo edertasuna gorestea. Orain hezur-mamizko pertsonaiak dituzte inspirazio-iturri. Berdin dio landakoa edo herrikoa izatea. Eguzkiak erretako izaki anonimo horiengan, lantzen duten lurrarekin mimetizatuta dauden horiengan, istorio handiak aurkitzen dituzte.

Ipuin bakoitzak ukitu berezia du, baina liburu honetako bederatzik kontakizunetan istorio arruntak eta jende apala dira nagusi. **Giovani Verga** (1840-1922) “verismoaren” ordezkaria zela munduan ospea lortu zuen egilearen bi kontakizun daude. Lehenengoa, “X”, zorigaitzoko maitasunaren kronika da, eta bigarrenak, “La hacienda”, lukurari zahar batek jabetzarekin duen obsesioa deskribatzen da. **Edmundo de Amicis** (1846-1908) idazleak, “El enfermero de Tata” lanean, emigrazioaren drama kontatzen du: Napoliko haur batek etxea uzten du ospitaleratuta dagoen aita zaintzeko. Istorioak “Marco, Apeninoetatik Andeeta-

ra” ipuina gogorarazten du, hori ere Amicisena.

“A traición” kontakizunak, **Italo Svevo** (1861-1928) idazlearenak, liburu osoan zama psikoa-nalitikorik handien aduena da. Gai delikatuaztertzen du. Adiskidetasunaren arrakalak arazo ekonomikoak tartean daudenean. Argudio bikaina gizakiaren kontzientzian sartzeko. **Gabriele D'Annunzio** (1863-1938) idazlearen bi kontakizun labur hautatu dira. Lehenengoa, “El tesoro de los pobres”, bitxi bat da. Liburuko onena. Ilusioaren botereari buruzko parabola.

Amaitzeko, bi egile ospetsu. Biak Literaturako Nobel saridunak dira. **Luigi Pirandello** (1867-1936) idazlearen “La tinaja” kontakizuna nabarmenduko dugu. Istorio sinestezina ukitu surrealistekin, abokatuentzat bereziki dibertigarria izango dena. Ez dugu besterik argituko, baina ziurrenik, kide batek baino gehiagok protagonistarengan ikusiko du behin eta berriro ahalegindu arren gainetik kendu ezin duen bezeroa. Liburua itxeko, **Grazia Deledda** (1871-1926) idazlearen kontakizuna dago. “El jabatillo” izenburua du, eta istorio xume eta gozoa da. Estilo gardena erabiliz, Deleddak haurtzarora eta natura oroitzen ditu. Mezua biribila eta denboraz kanpokoa da. Indarkeria absurdua dela gogorarazteko.



BLANCANIEVES

Pablo Berger

Kultura BEZari buruz hitz egin dezakegu, negozio erromantikoa ia-ia heriotzara eraman baitu (Bartzelonan, esaterako, zinema batzuetan zeluloidea betiko hil da; formatua digitala da); sarearen kalteaz hitz egin dezakegu, baina film bati kalterik gehien egiten diona aurreiritziak dira.

Eta, nire ustez, horixe da film honen oztopo nagusia: lau eragozpen otu zaizkit. Film espainiarra da (inor ez da joaten urtean bi aldiz baino gehiago —eskuzabalak izanda— mota horretako filmak ikustera); taurinakian eta folklore andalustarrean girotuta dago (guztiok ez dugu gogoko), mutua da eta bere aurretik film frantziar baten arrakasta handiagoa izan zuen.



Berger-ek maisulan hau egiteko *Torremolinos 73* lanetik igaro diren urteak (zortzi eta piku) behar izan dituen arren, beste batzuek denbora gutxiago behar izan zuten (finantziario!), lehenago estreinatu zuten eta, gainera, Oscar saria eskuratu zuten.

Modu horretan, sorpresa faktorea eta faktore berritzailea lausotuta egon dira hasieratik.

Azken finean, baldintza gehiagi *delicatessen* bat errentagarria izateko. Ziurrenik, sarreraren zortzi euroak ordaintzera ausartu denari ez dio hutsik egingo.

Filmak iturri ugari ditu, baina produktua bakarra izateko nahiko ekarpen ditu, eta ez pastiche atsegin bat, hainbeste sari jaso zituen *The artist* lana bezala. Ezin dugu esan ukitu kla-

sikoa duenik, zinema mutuaren urrezko aldiaren sortu izan babiliz *Metrópolis* bera baino abangoardistagoa izango litzateke (eragin espresionista nabarmena da).

Baina ez da film moderno bat *stricto sensu*. Lehen planoetatik asmatzen da filmaren boterea irudian datzala: irudia oso iradokigarria denez, hasieratik igartzen dugu iraganera jauzi egiten ari garela. Aldi horretan, emozioen isuria gertatzen zen plano bat, begirada bat, aurpegi bateko malloak emozio bat eragiteko gai zirenean.

Ildo horretatik, istorioaren lehen zatian, protagonista oraindik neskatotxoaren denean, bi, hiru eta lau planok ileak zutik jartzen dituzte. Ezer aurreratu gabe, autoan bertan behera utzi zuen aita dagoela pentsatuta atzetik korrika egiten duen neskatotxoaren plano, autoa inoiz harrapatuko ez duela jakinda, klasiko adela iruditzen zait. Beste horrenbeste esan dezakegu aita toreatzailearen eta amaordeak administratzen duen etxean bahitutako alabaren arteko begiradei buruz.

Oso originala da Grimm anaien klasikoari emandako bira hau. Hala ere, egokitzapen batean gainditu behar ez diren eta jatorrizko ipuina desnaturalizatu dezaketzen mugak errespetatzen ditu. Prentsan, irradian eta telebistan Edurnezuri helduaren (Macarena García) eta amaordearen (Maribel Verdú) interpretazioari buruz guztia esanda dagoenez, ez dugu beste ezer gehituko. Goraipamen orokor horretan parte hartuko dugu guk ere. Bakar-bakarrik esango dut haiek eta bigarren mailako aktoreak (Ramón Barea bikain dago, handien artean handia) eta ipotxak (Freaks filmeko pertsonaien moduko kutunak).

Maisulana, zalantzarik gabe.

TESTIGO ACCIDENTAL- THE NARROW MARGIN

Richard Fleischer, 1952

Wikipediak beti ez du asmatzen. Mundu internautan esaten den moduan, B serieko filma baliabide gutxi dituen, errekor denboran grabatzen dena (13 egun erabili ziren grabatzeko gaurko honetan), interprete ezezagunak edo gainbeherakoak dituen da, baina ez dugu uste hitz hori kalitate txarreko ekoizpenei lotuta dagoenik. Oker daude. B serieko film askok ospe handiko beste askok baino kalitate handiagoa daukate. "A serieko" filmik inoiz grabatu ez zuten zuzendari asko mapatik desagertuko liriateke.



Are gehiago, hemen aipatutako zuzendariak eta beste askok ospe handia lortu dute aurrekontu txikiarekin eta agian gogorik gabe egindako filmengatik, hain interesgarriak ez diren beste film mitiko batzuegatik baino. Dena den, Fleischer-en film guztiak gustatzen zaizkigu. Foro honetan, *The bodyguard* lanaren erreseña eginda daukagu (ez da nahasi behar zoritxarreko W. Houstonek egindako beste harekin).

Beste bat bildumarako. B serieko filma (71 minutu), aktore ia-ia ezezagunak, eta kokapen gutxi (tren bat eta tarte labur batzuk tren-geltoki batean). Bikaina, klaustrofobikoa. Korridoreetan poliziek eta gangsterrek bat egiten dute, lehenengoen bigarrenei pasatzen uzten diete, eta alderantziz, bagoien artean ateak irekitzen dira eta ikusleak arnasa hartzen du, espazio irekiagoetan sartzen delako (taberna-

jatetxearen espazioa). Konpartimentuetan itxuraz polizia bakar batentzat lekua dago, baina gangster baten alarguna ezkutatzeko tarte ere badago, mafia atzetik baitu.


Gidoia simplea da, baina bilbearen zerbitzura dago. Kidea tiroketa batean hil zaiolako haserre dagoen polizi abateko mafioso baten alarguna zaindu behar du trenegindako ibilbidean. Helmuga epaitegia da, emakumeak sare kriminalaren aurka deklaratu du eta. Gangsterrek ez dakite zein den alargunaren itxura fisikoa, ez baitute inoiz ikusi. Hori dela eta, bilbea entretenigarria da.

Gidoiak amaiera harrigarria izango du, inoiz ez genuen asmatuko.

Erritmoa, suspentsea, aktore sinesgarriak, poliziak Mafieren barruan, mafiosoak poliziak erosten bagoietan, bagoiak ere bizidunak dira...

Treneko maitasunak eta esaldi antologikoak (filmaren amaieran dauden batzuk Casablanca filmeko esaldi mitikoen parekoak dira), arnasa kentzeko emakumeak... Osagai horiek guztiak aurki ditzakegu thriller bikain haietako batean. Halakoak ez ziren berriro egin, agian errazegiak ematen zutelako.

Jakitunenak ez zarete konformatu behar laurogeita hamarreko hamarkadan izenburu berarekin eta Gene Hackman protagonista zela egindako remakearekin. Hori ere gomentatzeko modukoa da, baina tren batek zuri-beltzean inoiz ez du izango parekorik.



BILL FAY – Life is People



Cd
(Dead Oceans)
12 abesti

Bill Fay abeslari, piano-jotzaile eta konpositore britainiar eta enigmatikoaren itzulera asko ospatu dute. Prentsa espezializatuko erreseñak –ia-ia salbuespenik gabe- bikainak izan dira, eta aldizkari konbentzionalek zein *underground* giroan mugitzen direnek espazioa eta arreta eskaini diote, pertsonarik optimistenak ere itxaroten ez zuen bestekoa. *Life is People* lanak merituak izan arren, arreta horretan beste faktore batzuek ere zerikusia dutela esango nuke. Kazetari ospetsu batzuek eta musikari ezagunek urte luzez oso gustuko zutela esan ondoren, badirudi azkenean ordaina lortuko duela, baina ordain hori, lortzekotan ere, oso berandu iritsiko da. Musikari horietako batzuk Nick Cave eta Jeff Tweedy dira (azken horrek, Wilcorekin, abeslariaren tema batzuen bertsoak egin ditu), Jim O'Rourke ekoizlea eta Ben Chasny, Six Organs Of Admittance neo-folk psikodelikoaren taldekoa.

Life is People musika-industriak Fay bertan behera utzi zuenetik berrogei urte baino gehiago igaro ondoren iritsi da. Berari buruz esan zuten Nick Drake, Ray Davies eta Bob Dylanen arteko nahastea zela, eta egia esan, denbora honetan, abestiak konposatzen jarraitu du, eta etxe txikitetan atera ditu, oso hurbiletik jarraitzen zutenek bakarrik entzun ahal izateko. Eta, egia esan, ez da oso erraza disko hau entzutea. Fayren

ahotsa zorrotza, sakona eta sentimenduz bete da, baina laua da. Abestien tematika, erlijioari, norbere buruarekin bakean egoteari eta ekologismo klasikoari aipamen eginez, beste garai batekoa dela dirudi. Ekoizpenaren tonua iluna eta malenkoniatsua da, eta batzuetan soinu-artifizio ikusgarriak erabiltzen dituen arren –“This World”- , oinarritzkoa, ia intimoa dira nagusi, pianoa eta ahotsa azken hesiak direla. Hala ere, esan beharra daukat, Fayren magiak, abesti bikainak egiteko gaitasunak, betiko moduan distira egiten du eta azken hilabeteetan jasotako ekoizpenen artean nabarmendu egiten da, nonbaiten modu eskuzabalean maisulana dela ere esaten dutelarik.

Itzulera honi esker, Fay orain ezagutzen dutenek beste urrats bat eman eta lehenengo diskoak sakondu beharko lituzkete. Lehenengoa, homonimoa, zein hurrengoa, *Time of the Last Persecution*, hirurogeiko hamarkadaren amaierako eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaierako pop britainiarraren pieza giltzarriak. Lan horiek artista horrengandik askoz gehiago erakusten dute. Askok pozten gara itzuli delako, baina –ia oker gabiltzan- hil osteko omenaldia- ren itxura dauka.

RICHARD HAWLEY – Standing at the Sky's Edge



Cd
(Parlophone)
9 abesti

Balada egile bikaina, eta beti asmatu zuen *cool* legatua Roy Orbisonen tankeran eta literatura bikaina elkartzean eta soinu retroa eta ondo ulertutako klasizismoa elkartzean. Egia esan, Hawleyk pilotu automatikoa jarri ahal zuen eta edozein unetan aspalditik merezi duen aitortpena etortzea itxaron. Hala ere, Sheffieldeko galai atipikoak, prestidigitazio ariketa batean, lan honetan apustu handia egin du, eta arrisku handiak bere gain hartuz, bete-betean asmatu du.


Izan ere, nork espero zuen rock kosmiko garaikidearen gidari bihurtuta? Azken diskoetan zeraman bide atsedenetik urrunduz, hemen intentsitate handiko gitarra-apustua egin du, eta une batzuetan muturreko psikodelia ere agertzen du. Elektrizitatea askatuta, soinuak une batzuetan ahotsa bigarren mailan uzten du, abeslariaren erakargarritasun handienetakoa izan arren. Harrigarria izango da abeslariaren alderdi lasaiarekin, ia-ia *crooner*-aren irudia- rekin, bat egiten zutenentzat, rock psikodeliko

hutseko disko hau harrigarria baita. Hala ere, lan horren bigarren zatian guztia lasaitu egiten da eta abeslariarengan ohikoak ziren erregistro asko ikusten dira. Beraz, mugimendu hau agian behin betikoa ez dela esaten da, ibilbideko beste urrats bat baizik, arduradunak agian erronka baten beharra zuen eta.

Egia esan, disko modelikoa da, abestiz oragarritz bete eta oso ondo grabatua. Oso ondo funtzionatzen du rock biziari lotuta zein alderdi lasaiari lotuta. Nire ustez, lan biribila da, eta urteko diskoaren titulua kendu ahal die Spiritualized taldekoei edo itxuraz garaitezina den Neil Youngen *Psychedelic Pills* lanari. Guztiek zama psikodeliko handia dute, bitxia bada ere. Eta entzuleen belaunaldi berria itxuraz mundu lisergikora hurbiltzen ari den unean, uneko *hype* izenekoaren bitartez –Tame Impala australiarrak–, ona izango litzateke argi uztea non dagoen irizpide erabakigarria eta non egiten duten egindakoen kopiatze hutsa.



UN GIORNO DI REGNO



Denboraldiko eta ikasturte honetako "Tutto Verdi" proiektuko bigarren lan moduan, OLBEK, historian lehenengo aldiz, Parmako maisuak konposatutako bi opera komikoe-tako lehenengoa taularatu du. Opera estreina-tu zenean, Milango Scalan, 1840ko irailaren 5ean, porrot handia izan zuen. Verdik eta kritikariek aitortu zuten porrota, neurri handian, konpositore bikainaren inguruabarren emaitza izan zela; izan ere, bi semeetako lehenengoa eta emaztea lana konposatzen ari zela hil ziren. Hala ere, akats nagusia gustu-aldaketak kontuan ez hartzea izan zen. Opera komikoen sasoa igarota zegoen, eta garai hartan melodrama sentimentalak edo aberkoiak ziren nagusi.

Bi ekitaldiko "melodrama barregarria" da, Felice Romaniren libretoarekin. Alexandre Vincent Pineu-Duvalen Le faux Stanislas piezan oinarrituta dago. Lana opera-denboraldietan oso gutxi antzetzutakoa da, konposizio-egitura ahula du, eta Verdi konpositore handia izango zela iragartzen du. Ia-ia ez du puntu komikorik, eta amaiera zorionsuarengatik izango ez balitz, opera serioa dela esango genuke, ez opera komikoa. Lanean komenientziaz ezkonduko diren bi bikoteren istorioa kontatzen da; ez kasu batean ez bestean bikoteek ez dute ezkondu nahi. Horretarako, nortasuna ordeztu egiten dute ezkontza horiek saihes-teko, eta azkenean bikoteak maitasunak gidatuta eta ez interesgatik eratzen dira. Hala ere, argudioak jirabira asko egiten ditu, eta tartean konpromisoak, deuseztapenak, me-hatxuak eta sorpresak daude.

Teatro Regio di Parmaren ekoizpena, Pier Luigi Pizziren eszena-zuzendaritzapean, ego-

kia eta erakargarria izan zen ikuspuntu este-tikotik. Jantziak ikusleei poza eragiteko mo-dukoak izan ziren, Dekoratuak neoklasikoak izan ziren. Ekintza ez zen oso dinamikoa izan, eta koreografia sinpleegia. Horiek ez ziren oso lagungarriak partituras bakarlariei emandako dinamismo handiko hizkuntzarentzat.

Musikaren ikuspuntutik, Alberto Zedda ita-liar maisuaren batuta beterano eta Rossini-ren ukitukoak pezoian a priori ematen zuen bermea azkenean ez zen izan espero zen mo-dukua, ez baitzuen asmatu modu egokian ba-teratzen Bilbon askotan arrakasta lortu duen talde instrumentala, Nafarroako Orkestra Sin-fonikoa, eta OLBEK aldi honetan hautatutako ahots-taldea.

Doinu pozgarri eta iradokigarriz betetako lan honek sei bakarlari behar ditu. Protagonis-moa nahiko orekatuta dago guztien artean. OLBEK hautatu ditu: Delibor Jenis Eslove-niako baritonoa, Paolo Bordogna Milango baritonoa, Irina Lungu soprano errusiarra, Silvia Vázquez soprano valentziarra, Antonio Siragusa tenor italiarra eta David Soar baxu-baritono ingelesa.

Lehenengoak "Cavaliere di Belfiore" interpre-tatu zuen, baina ez zen oso irmoa izan. Esze-nan aritu zen hoberen. Musikari dagokionez, ahots-hedadura osoan igorpen ona duen abeslaria dela erakutsi zuen arren, fraseatze ez oso dinamikoarekin, ez zen gaueko aipaga-riena izan.

Bigarrenaren "Barone di Kelbar" askoz hobe-a izan zen. Eszena-eginkizunean maila handia erakutsi zuen, adierazkortasun handia, eta



bolumen handiko interpretaziorako ahots-baliabide ugari dituela agertu zuen, baita igorpen oso ona ere ahotsaren hedadura osoan. Partiturak luzimendurako aukerarik ematen ez dion arren, nabarmentzeko modukoa izan zen bigarrenarekin dituen bi duetoetan.

OLBEn debuta egin zuen hirugarrenaren “La Marchesa del Poggio” pertsonaiak kantu-ederetasun handia erakutsi zuen, musikaltasun handia eta artikulazio ona. Nahiko mugatuta egon zen erregistrorik altuenean, eta batzuetan txiro aizan zen. Eszena-eginkizuna aipatzeko modukoa izan zen.

Valentziarrak interpretatutako “Giulietta di Kelbar” pertsonaiak ahots ederreko soprano arina erakutsi zuen, intentsitate urrikoa. Erraztasun handiz mugitzen da erregistro altuan, baina batzuetan apur bat durunditsua izan zen.

Bosgarrenaren “Edoardo di Sanval” pertsonaiak, José Manuel Zapata ordezkatzuz, ez zuen aztarnarik utzi. Tenorrek ahots-hedadura handia du eta erraztasun handia nota altuetan, baina segurtasunik eza erakutsi zuen mota horretako erregistroan antzezpen osoan, agian igortze-teknika lasaia eta bolumenean ñabartua aplikatzeko beharra duelako, nire ustez. Aktore moduan ez zen natura legon, eta nota altuak al bait indartsuen emateko gehiegizko ahaleginak egin zituen.

Amaitzeko, “Il Signor la Rocca” papera baxu-baritono britainiarrek luzimendurik gabe egin zuen, eszena-eginkizun egokiarekin (ez oso komikoa), eta tesitura tresna igarobidean oso zentratuta egon zen.

Harrigarria bada ere, Bilboko Operaren Abesbatzaren doinua ez zen betikoa izan, Bitxia izan zen lan askoz zailagoetan lortu ohi duen arrakasta lan honetan lortu ezin izatea.

Laburbilduz, luzaroan ahaztuta egon den opera baten estreinaldi duina.



“Un Giorno de Regno”

Aktoreen zerrenda: Dalibor Jenis (b); Paolo Bordogna (b); Irina Lungu (s); Silvia Vázquez (s); Antonio Siragusa (t); David Soar (b-bx); Eduardo Ituarte (t); Bilboko Operaren Abesbatza; Nafarroako Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Pier Luigi Pizzi; Musika-zuzendaritza: Alberto Zedda; Lekua, Euskalduna Jauregia.

Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua




Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



servicios tecnicos periciales.

Valoración de edificios y obras. Viviendas, fincas rústicas, arbolados, animales, expropiaciones, maquinaria... **Valoración de daños.** Humedades filtraciones, incendios, robos... **Peritaciones de parte** contra dictámenes de Aseguradoras. Valoración de Responsabilidad Civil Construcción. Daños estructurales. Obras mal acabadas o con defectos. Valoración de empresas. **Peritación de Automóviles.** Reconstrucción de accidentes. Comisarios de Averías. **Valoración de bienes muebles.** Antigüedades, joyas, muebles, pinturas, libros... **Valoración del daño corporal.** Investigación de accidentes laborales. Valoraciones psicológicas. **Inspecciones.** Inspección con cámara termografía, detección de humedades ocultas, higrometrías, fallos estructurales. Sonometrías y dosometrías, mediciones acústicas y confección de informes, medición de aislamientos. **Balística.** Informes de balística interior, exterior, terminal y de impacto.

A LA FAMILIA LE DEBEMOS TODO



Thomson Reuters Aranzadi le presenta un exclusivo servicio online de investigación jurídica: **ARANZADI FAMILIA**. El enfoque teórico y la guía práctica que necesita para el desarrollo integral de cada proceso del Derecho de Familia.

- **Enfoque y análisis global** en cualquier temática de Derecho de Familia y de aquellos aspectos, civiles, mercantiles, penales, administrativos, laborales, tributarios, cuestiones procesales y de derecho internacional privado que refieran a temática familiar.
- **Servicio de consultas** que le permitirá enviar cualquier duda a nuestro equipo de expertos. Preguntas y respuestas disponibles, para consulta desde el buscador.
- Exclusivo **buscador universal** que le permite localizar toda la información integrada e interrelacionada, a través de una única y sencilla consulta.
- Acceso directo a los diferentes **Acuerdos de Sala**, tanto del Tribunal Supremo como de las Audiencias Provinciales.
- **Disponible en su iPad** en cualquier momento y lugar.

PARA NOSOTROS, LA FAMILIA TAMBIÉN ES LO PRIMERO

**SOLICITE
SU CLAVE
GRATUITA**

Llame al teléfono de atención al cliente: 902 444 144 / 948 297 288 o envíe un email a: clientes@aranzadi.es

